

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2018ko abuztuaren 22an hartutako Erabakiaren bidez, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110, 111 eta 127. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Presako prozedurari jarraikiz izapidetzea 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik, **zortzi egun balioduneko epea hasiko da, zeina 2018ko irailaren 20an, eguerdiko hamabietan, bukatuko baita.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote foru lege proiektuari.

Iruñean, 2018ko irailaren 3an

Lehendakaria:

Ainhua

Aznárez

Igarza

Foru Lege proiektua, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

2017ko urtarrilaren 1ean hartu zuen indarra abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeak, 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duenak.

2017-2019 aldirako toki inbertsioen planaren indarraldian gertatu diren gorabehera batzuk direla-eta, komeni da aipatutako foru legearen zenbait artikulua berrikustea.

2017-2019 aldirako toki inbertsioen planeko espedienteen kudeaketa hobetzeko eta inbertsioen finantzaketa aurrekontuen plangintzarekin bat etor dadin, 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea aldatzen da gai hauetan:

– Toki Inbertsioen Planaren aurrekontu tratamenduari dagokionez –3. artikuluan jasota dagoena–, paragrafo berri bat erantsiko da, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiaren konpromiso ekonomikoen egozpena aldatu eta ekitaldi desberdinetan egin ahal izateko, lanen exekuzioaren aurreikuspenen arabera, betiere zerbitzu eskudunak txostena eman ondoren.

– Toki Inbertsioen Planaren ekarpenak beste laguntza batzuekin bateragarriak izateari dagokionez, betebeharrak bat erantsi da kasu horietarako, inbertsioan erabiltzeko jasotzen diren bestelako funtsen zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa frogatzeko, alegia.

– Salbuespeneko araubidea aldatzen da, eta, zehazki, araubide horri atxikitzeko baldintzak, eta betebeharrak bat ezartzen: araubideari atxikitzea eskatu aurretik inbertsioa doitu beharko da, edo, posible denean, finantzatzeko formula alternatibo bat proposatu. Laguntzaren kopurua zuzentzen da, BEZ kengarria ez duten inbertsioetan dagokion BEZa gehituz, eta lurraren gaineko kontribuziorako egun indarra duena zerga-tasaren 0,20ko gutxieneko igoera onetsi eta mantentzeko betebeharrak ezartzen da.

– Larrialdiko prozeduraren erregulazioa aldatzen da, larrialdiaren kontzeptua egokitzeko Nafarroako kontratu publikoetarako buruzko foru araudian jasota dagoenera, eta argiago ager daitezkeen bereizita bi prozedura desberdin, bata larrialdiko jarduketarako, eta bestea larrialdiko jarduketak osatzeko behar diren jarduketak osagarrietarako.

– Artikulu berri bat erantsen da, 22. bis artikulua, hasierako baimenaren prozedura berri bat arautzeko, erreserbako zerrendan dauden inbertsioak hasteko aukera ematen duena, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planan ondoren sartzeko eskubidea galdu gabe.

– Inbertsioak egiteko epeak ezartzeko ahalmena, Toki Administrazioako Zuzendaritzak duena, aukerakoa izanen da aurrerantzean, eta, horrekin batera, epeak luzatzeko aukera ere ezartzen da, salbuespenez.

– Obraren hasierako ekarpena handitu egiten da, %50etik %60ra. Horrela, toki entitateen ahalmen ekonomikoa hobetzen da, eta, aldi berean, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiari bide ematen dio obraren hasieran gastu portzentaje handiagoa exekutatzeko.

– Zehapenen araubide berri bat arautzen da bi kasu hauetarako:

– Obren hasiera atzeratzen denean, bi hilabetez gehienez, salbu eta baimen berezi bat dagoenean.

– Inbertsioaren amaierari buruzko frogagiriak aurkezten ez direnean horretarako ezarritako epe kanpo.

Horrela, lehen kasua desagertzen da inbertsioa planetik kanpo uzteko arrazoietatik, eta bigarrena, berriz, inbertsioa partzialki planetik kanpo uzteko arrazoietatik.

– Uko egitea eta kanpo uztea bereizten dira, eta ukoaren kasuan administrazio prozedurari buruzko oinarriko legeriara jo beharra ezartzen da berariaz.

– Libreki erabaki beharreko inbertsioen araubidea aldatzen da, eskumenak udalei eskuordeturik dituzten kontzejuek inbertsio horiek kudeatzea errazteko, edo egokitasun-txostena epean eskatzen ez duten kontzejuen kasua; horrela, aukera ematen da kontzeju horien udalek egin ditzaten zenbait lan: egokitasun-txostenak eskatu, inbertsioak exekutatu, eta kasuan kasuko ordainketak tramitatu. Horrekin batera, libreki erabaki beharreko ordainketak eskatzeko epe berriak adierazten dira, 2018an nahiz 2019an exekutatu behar diren inbertsioetarako, eta ezartzen da azaroaren 1a izanen dela azken eguna 2018ko ordainketak aurreratzeko. Bestalde, aurrekontuan diru erabilgarria dagoenean, 2019rako emandako ekarpenak 2018an ordaintzea ahalbidetzen da.

– Tramitazioa errazteko aurkeztu beharreko dokumentazioa sinplifikatzen da, eta dokumentazioa aurkezteari buruzko bi apartatu berri gehitzen dira, larrialdiko prozeduraren kasuan eta hasteko baimenaren kasuan.

Finean, aldaketa horien xedea da atzemandako akatsak zuzentzea, bikoiztutako gaiak kentzea eta zenbait kontzeptu argitzea.

Artikulu bakarra. 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea aldatzea.

2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea honela aldatzen da:

Bat. 3. artikuluko 3. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“3. artikulua. Toki Inbertsioen Planaren aurrekontu tratamendua.

3. Konpromiso ekonomikoak kasuan kasuko ekitaldi ekonomikoari edo ekonomikoei egotziko zaizkie, betiere kontuan hartuta Toki Inbertsioen Planaren gaineko araudia aplikatetik sortzen diren ordainketen aurreikuspena eta aurreko apartatuaren arabera ezarritako aurrekontu banaketa; urte anitzeko gastuaren izaera izanen dute ondorio guztietarako.

Konpromiso horien egozpena aldatzen ahalko da, ekitaldi desberdinetan egiteko, lanen exekuzioaren aurreikuspenen arabera, betiere zerbitzu eskudunak txostena eman ondoren”.

Bi. 4. artikuluko 3. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“4. artikulua. Toki Inbertsioen Planaren ekarpenen banaketa.

3. Inbertsio Programen eta Toki Programazioaren ataletarako zenbateko osoaren 100eko 5 gordeko da, gehienez, larrialdiko eskaeraren kalifikazioa dutenei eta haien inbertsio osagarriei aurre egiteko, edo salbuespeneko araubideko finantzabidea behar duten inbertsioei aurre egiteko”.

Hiru. 5. artikuluko 3. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“5. artikulua. Bateragarritasuna.

3. Toki Inbertsioen Plan honen ekarpenaz gain, bestelako diru-laguntzekin finantzatu baldin bada inbertsioa, horretarako jaso diren funtsen zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa frogatu beharko dira”.

Lau. 14. artikuluko 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“14. artikulua. Diru-ekarpenaren portzentajeak, kontzeptuak eta gehieneko zenbatekoak.

2. Zenbateko diruz lagungarrian sartu beharreko kontzeptuek eta ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoek V. eranskinean xedatutakoarekin bat etorri beharko dute”.

Bost. 16. artikuluko 2. eta 3. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“16. artikulua. Bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostenak.

2. Libreki erabaki beharreko jarduketetarako ez da bideragarritasun ekonomikoaren txostenik beharko, ezta larrialdiko inbertsioetarako ere.

Toki inbertsioen aurreko planaren indarraldian emandako hasierako baimenen babesean hasi edo amaitutako inbertsioek eta hasteko baimena 2017-2019 aldirako inbertsio planean jaso dutenek ez dute bideragarritasun ekonomikoa berriz frogatu beharko.

3. Inbertsioaren bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioak ebaluazio negatiboa jasotzen badu, toki entitateak hilabeteko epea izanen du, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, erabaki hauetako bat hartu eta Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiari jakinarazteko:

A) Inbertsioa bere finantza ahalmenera egokitzea.

B) Finantzetarako formula alternatibo bat proposatzea.

A) eta B) letretan arautzen diren erabakietako bat hartzerik ez dagoenean, hau egin daiteke, justifikatu ondoren betiere:

C) Foru lege honen hurrengo artikuluan jasotzen den salbuespeneko araubideari atxikitzea eskatzea.

Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunaren iritziz toki entitateak proposatutako aukerak akatsik badu, azken epe bat emanen du zuzenketa egiteko, hamar egun balioduneko. Epe horretan zuzendu ezean, inbertsioa bideraezina dela ulertuko da”.

Sei. 17. artikuluko 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“17. artikulua. Salbuespeneko araubidea.

1. Salbuespen gisa, toki entitateak hala eskatuta, ekarpenaren zenbatekoa handitzen ahalgo da, inbertsioen zenbateko lagungarriaren ehuneko ehuneraino, uraren goi hornidurako eta hiri hondakinen tratamenduko Inbertsioen Programetako eta Toki Programazioko inbertsioetan, BEZa gehituz BEZ kengarria ez duten inbertsioen kasuan, betiere Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunak egiaztatzen badu toki entitateak ez duela aski ahalmen ekonomikorik eta finantzariorik inbertsioa zenbateko horri dagokion kopuruan gauzatzea bideragarria izan dadin.

2. Salbuespeneko araubide horri atxikitzeko, toki entitateek erabakia hartu beharko dute, osoko bilkuraren, kontzejuko batzordearen edo batzarraren bidez, ondotik adierazten diren konpromisoak bertan jasota.

A) Salbuespeneko araubidean sartutako inbertsioak gauzatzeko epean, sartutakoez bestelako inbertsiorik ez egitea, eta kreditu edo finantza zama berririk ez hitzartzea, non ez dion Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak berariazko baimena ematen, salbuespeneko inguruabarrak daudelako edo bermatuta dagoelako etorkizunean ez duela defizitrik ekarriko.

B) Baliabide berekiak salbuespeneko araubidean sartzeko aurreikusitako moduan atxikitzea.

C) Aurreko konpromisoez gain, udalek egun indarra duen zerga-tasaren 0,20ko gutxienerako igoera onetsi eta mantendu beharko dute, eta igoera aplikatu ondoren tasa ezin da izan 0,30etik beherakoa, ez eta 0,50etik gorakoa ere; horrekin batera, balorazio txostena eguneratu beharko dute araudi indardunarekin bat. Lurraren gaineko kontribuzioaren zerga-oinarrian ez da murrizketarik onetsiko, ezta aplikatuko ere, balorazio txostena eguneratzeak katastroko balorazioa igotzearen ondorioz.

D) Kontzejuek, A) eta B) letretako konpromisoez gain, kontribuzio bereziak edo bizilagunen ekarpenak onetsi beharko dituzte, artikuluko honen 4. apartatuan aipatzen den foru aginduaren arabera kalkulaturako oinarri bati lurraren gaineko kontribuzioiko 0,30eko gutxienerako zerga-tasa aplikatzeak sortutako zenbatekoa adinakoa. Eskuordeturik egindako inbertsioen kasuan, kontzejuek ados jarri beharko dute udalarekin, udalak konpromisoa har dezan behar den zenbatekoa jartzeko, kontzejuentzat bideragarria izan dadin inbertsioa egitea.

Konpromiso hori onartzeko baldintza izanen da udalarentzat ekonomikoki bideragarria izatea ekarpena egitea. Bideragarria ez bada, udaletarako salbuespeneko araubide honetan araututakoa aplikatuko da”.

Zazpi. 18. artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“18. artikulua. Inbertsioek bete beharreko baldintzak.

1. Inbertsioak ezin izanen dira gehieneko diru-ekarpena finkatu aurretik hasi, salbuespen hauekin:

A) Toki Inbertsioen aurreko Planaren indarraldian emandako hasierako baimenen babesean hasi edo amaitutako inbertsioak.

B) Hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera larrialdiko inbertsioaren kalifikazioa dutenak.

C) Hasierako baimena 22.bis artikuluan xedatutakoaren arabera jaso duten inbertsioak”.

Zortzi. 19. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“19. artikulua. Larrialdiko prozedura.

1. Toki Inbertsioen Planean sartzen ahalko dira foru lege honen 6. eta 11. artikuluetan aurreikusitako azpiegiturak eta ekipamenduak berehalakoan lehenagotzeko beharrezkoak diren jarduketak, salbu eta banda zabaleko azpiegituren arloko Inbertsioen Programan sartutakoak, hondamendiak tartean direla egin beharrezkoak, edo arrisku larria eragiten duten egoerak edo segurtasun publikoari eragiten dioten beharrak daudelarik.

Prozedura horren bidez sartzen ahalko dira bai Nafarroako kontratu publikoei buruzko legeekin bat larrialdiko kontratazioen bidez egindako inbertsioak, bai izaera hori izan gabe kontratatutakoak, Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunak beharrezkotzat jotzen baditu larrialdiko kontratazioen bidez egindakoak behar bezala osatzeko.

2. Toki entitateak larrialdiko jarduketaren kalifikazioa emateko eskaera aurkeztu beharko du, gertatu eta hamar egun balduneko epean gehienez ere, izaera hori ematea ahalbidetzen duten inguruabarrak frogatzen dituen txosten bat eta gauzatu beharreko jarduketaren hasierako aurreikuspen baloratu bat erantsita.

3. Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunak, ikuskapen bisita egin ondoren, txosten loteslea emanen du jarduketari larrialdiko kalifikazioa onartzeari edo ez onartzeari buruz artikuluko honen ondorioetarako, eta larrialdiko jarduketak eta horiek osatzeko beharrezkoak diren jarduketa osagarriak bereiziko ditu.

4. Jarduketa bati larrialdikoaren kalifikazioa Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez emanen zaio.

Jarduerari larrialdikoaren kalifikazioa ematen dion ebazpen horretan berean zehazten ahalko dira beharrezkoak diren jarduketa osagarriak, zerbitzu eskudunak proposatutakoak.

5. Toki entitateak justifikatuko du larrialdiko jarduketa, IV. eranskinen 12. atalean aipatzen den dokumentazioa aurkeztuz jarduketa amaitu eta hilabeteko epean.

6. Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez finkatuko da larrialdikoaren kalifikazioa duen inbertsiorako gehieneko ekarpen ekonomikoa, foru lege honetan ezarritako prozedura orokorrekin bat, salbu eta toki entitate bakoitzerako dauden mugei dagokiena. Gero ordainketa egingen da.

7. Toki Inbertsioen Planean sartzeko modukoak diren jarduketa osagarriak foru lege honetan kasuko inbertsiorako aurreikusitako betebeharrak juridikoak, teknikoak eta ekonomikoak aplikatuko zaizkie, salbu eta toki entitate bakoitzaren mugei eta obra hasteko epeari dagokienez, hori Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez ezarriko baita”.

Bederatzi. 22. artikuluko 4., 5. eta 6. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“22. artikulua. Obren hasiera.

4. Obrak aurreko apartatuetan ezarritako epeetatik kanpo hasten badira, zehapenak ezartzen ahalko dira, non ez den baimen berezia ematen, salbuespenez, interes publikoaren onerako obrak atzeratzeko arrazoiak daudelako –toki entitateak frogatutakoak–, edo obrek partikularren gaineko ukipenak ekartzen dituztelako, baina betiere inbertsioaren erabilera eta xedea babestuko dira. Zehapen horiek eskala hauetan jasotakoak dira:

– Epez kanpo hastea, gehienez ere 15 eguneko atzerapenaz: gehieneko diru-ekarpenaren %10.

– Epez kanpo hastea, gehienez ere hilabeteko atzerapenaz: gehieneko diru-ekarpenaren %20.

– Epez kanpo hastea, gehienez ere bi hilabeteko atzerapenaz: gehieneko diru-ekarpenaren %50.

Obrak bi hilabetetik gorako atzerapenaz hasten badira, obra osoa geldituko da inbertsioen planetik kanpo, foru legearen 27. artikuluan adierazten den moduan.

Diru-ekarpena artikulua honetan xedatutakoarekin bat gutxitzeko, Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiak ebazpena emanen du, kasuan kasuko espedientearen toki entitate interesdunei 10 egun baliodunentzaldia emanda tramitatu ondoren.

5. Artikulu honen laugarren apartatua aipatzen den baimen bereziaren eskaera obrak hasteko epea amaitu baino 10 egun baliodun lehenago egingen da beranduenez.

6. Artikulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, obraren hasierako eguna zuinketaren aktan jasotakoa izanen da”.

Hamar. 22. bis artikulua gehitzen da. Hauxe da testua:

“22. bis artikulua. Hasierako baimena.

1. Erreserbako inbertsioen behin betiko zerrendan ageri diren jarduketarako, gehieneko diru-ekarpena ezarri aurretik eskatzen ahalko da hasierako baimena, behin argitara eman ondoren 10. artikuluko 2. apartatua eta 15. artikuluko 3. apartatua jasotzen diren ebazpenak.

2. Toki entitateek IV. eranskineko 13. atalean xedatutakoari jarraikiz aurkeztuko dute dokumentazioa. Bideragarritasun ekonomikoa egiaztatzeko, kontuan hartuko da inbertsioaren finantzaketa osoa dagokiola toki entitateari.

3. Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunek txosten lotesleak egingen dituzte, eduki tekniko, ekonomiko eta juridikokoak, proiektua eta finantza plana foru lege honetan xedatutakoarekin bat ote datozen erabakitzeko. Txosten guztiak aldekoak baldin badira, Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiak hasierako baimena emanen du ebazpen baten bidez.

4. Hasierako baimenak ez du eskubiderik sortzen, obrak ezarritako epeez kanpo hasten direnean izan ezik.

5. Hasierako baimena urtebetera iraungiko da, hura emateko ebazpena jakinarazten denetik hasita”.

Hamaika. 23. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“23. artikulua. Exekuzio epeak.

1. Plan honen kargurako zenbatekoak ordaintzearen ondorioetarako, inbertsioen exekuzio epeak Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren bidez ezartzen den denbora-programazioarekin bat ezartzen ahalko dira.

2. Salbuespen gisa, toki entitateak hala eskatzen badu, horretarako ezarritako epeak luzatzen ahalko dira Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez emandako baimen berezi batekin, gerora sortutako arrazoiengatik inbertsioaren exekuzioa epean egiterik ez dagoela iriztean. Eskaera hori, beranduenez, inbertsioaren exekuzio epea amaitu baino 10 egun baliodun lehenago egin beharko da”.

Hamabi. 24. artikuluko 2., 5. eta 6. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“24. artikulua. Ordainketarako eskaerak, obraren hasiera eta amaiera dela eta.

2. Inbertsio Programen eta Toki Programazioaren atalei dagozkien ekarpenen ordainketa honela egingen da:

A) %60 obraren hasieran.

B) %20 lanaren erdiak eginak daudenean.

C) Gainerako %20a, lanak amaituta.

5. Obra amaierako ordainketarako eskaera, IV. eranskineko 5. ataleko C) letran eskatutako dokumentazioarekin batera, hilabeteko epean aurkeztu beharko da, obrak xede duen erabilera publikorako entregatu daitekeela frogatzen duen harrera akta egin eta biharamunetik kontaktatzen hasita, enpresa kontratataren adostasunik ez badago ere.

Obra amaitu dela justifikatzen duten agiriak ezarritako epeetik kanpo aurkezteak zehapenak ezartzea ekartzen ahalko du, eskala honetan ezartzen direnak alegia:

– Epez kanpo justifikatzea, gehienez ere 15 eguneko atzerapenaz: obraren amaierako ordainketari dagokion ekarpenaren %5.

– Epez kanpo justifikatzea, gehienez ere hilabeteko atzerapenaz: obraren amaierako ordainketari dagokion ekarpenaren %10.

– Epez kanpo justifikatzea, gehienez ere bi hilabeteko atzerapenaz: obraren amaierako ordainketari dagokion ekarpenaren %15.

– Epea amaitu eta bi hilabete baino gehiagoko atzerapenaz aurkezten badira frogagiriak, obraren amaierako ordainketari dagokion zenbatekoa jasotzeko eskubidea galduko da.

6. Artikulu honetan xedatutakoarekin bat obraren amaierako ordainketari dagokion zenbatekoa gutxitzeko, edo obra amaierako ordainketari dagokion zenbatekoa jasotzeko eskubidea kentzeko, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak ebazpena emanen du, kasuan kasuko espedientea toki entitate interesdunari 10 egun baliodunez entzunaldia emanda tramitatu ondoren”.

Hamahiru. 27. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“27. artikulua. Toki Inbertsioen Planetik bazter uztea eta uko egitea.

1. Toki Inbertsioen Planetik erabat kanpo uzteko arrazoiak hauek izanen dira, eta horrek jasotako kopuru guztia itzuli beharra ekarriko du:

A) Inbertsioa Toki Inbertsioen Planean sartzea eragin duten baldintzak ez betetzea, edo baldintza horiei buruzko informazioa ezkatzea edo faltsutzea.

B) Foru lege honen 22. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, obrak epez kanpo hastea, bi hilabetetik gorako atzerapenaz.

2. Toki Inbertsioen Planetik kanpo partzialki uzten ahalko dira zenbait inbertsio, kasu hauetan:

A) Inbertsioaren exekuziorako ezarritako baldintzak ez betetzea, ez betetze horrek inbertsioaren xedeari kalte egiten dionean.

B) Inbertsioaren gauzatzea justifikatzeko aurkeztutako agiriak aski ez izatea inbertsio osoa behar bezala egin dela frogatzeko.

C) Inbertsioaren exekuzioa amaitzerik ez izatea obrak planean sartu eta gerora gertatutakoengatik.

Aurreko letretako kasuetan, zerbitzu tekniko eskudunek ikuskatuko dute behar bezala justifikatutako obra edo obra zatia, aurreikusitako erabilera publikorako erabil daitekeen edo ez zehazteko. Emaizta baiezkota bada, IV. eranskineko 5. ataleko C) letran jasotako dokumentazioaren bidez zerbitzuaren iritziz frogatuta dagoen kostuaren zatiari dagokion diru-ekarpena ordainduko da.

D) Inbertsioa salbuespeneko araubidean sartzeko onartutako konpromisoak ez betetzea.

Ez betetze horrek berekin ekarriko du araubide hori dela medio emandako kopuru gehigarriak jasotzeko eskubidea galtzea.

E) Inbertsioaren exekuziorako gehieneko epea ez betetzea horretarako eskatzen den baimena izan gabe.

F) Obra egiaztagirietan jaso gabeko hobekuntzak gehitu edo gauzatzea.

3. Diru-ekarpena ezarri zuen organo berak emanen du planetik baztertzeko ebazpena, kasuan kasuko espedientea toki entitate interesdunari 15 egun baliodunetz entzunaldia emanda tramitatu ondoren. Prozeduraren hasierak etenda utziko du ordaintzeko dauden diru-ekarpenetarako eskubidea. Itzulketa eskatzen ahalko da, kasuan kasuko espedientea interesdunari entzunaldia emanda tramitatu ondoren, konpentsazio bidez toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren transferentzia arruntan kargura, udalak edo kontzejuak direnean, eta ordainketa-gutunaren bidez gainerako entitate onuradunen kasuan.

4. Inbertsio osoari uko egiteko, administrazio prozedurari buruzko oinarrizko legerian ukoak baliodunak izateko aurreikusitako moduan jokatu da”.

Hamalau. 28. artikuluko 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“28. artikulua. Gehieneko diru-ekarpenaren aldaketak.

2. Ekarpene gutxitzeko aldatuko da adjudikazioko egiazko zenbatekoa lizitaziokoa baino txikiagoa denean, obra diruz lagungarria egiteko egiazko kostua gehieneko diru-ekarpena ezartzean aurreikusi zena baino txikiagoa denean eta, halaber, foru lege honen 22., 24. eta 27.2 artikuluetan aurreikusitako kasuetan.

Horrela eskatzen diren diru-kopuruak beste inbertsio batzuk finantzatzeko erabiliko dira, aplikatzekoak diren aurrekontu-mugak gainditu gabe eta inbertsio mota bakoitzerako ezarritako lehentasun ordenari jarraikiz”.

Hamabost. 30. artikuluko 1., 3. eta 5. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“30. artikulua. Xedea eta arau orokorrak.

1. Libreki erabaki beharrekoen atalean, udal edo kontzeju onuradun bakoitzak zeregin hauetarako erabakitzen dituen jarduketak daude sartuta, III. eranskinean aurreikusitakoaren arabera banatuta:

A) Aurreko ekitaldi ekonomikoko kontuetatik ateratzen den diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatzea.

B) Aurrekontu izaerako finantza pasiboak alde aurretik amortizatzea.

C) 2009-2012 aldirako Toki Inbertsioen Planaren babesean emandako hasiera baimenarekin gauzatzen diren lanak finantzatzea, bai eta Toki Inbertsioen egungo Planaren indarraldian gauzatu beharreko lanak ere.

D) Gastuen aurrekontuko sailkapen ekonomikoko 6. kapituluan kontabilizatu beharreko edozein jarduketa finantzatzea.

3. Azken ekitaldi ekonomikoko kontuetan edo likidazioan diruzaintzako gerakin negatiboa duten udal eta kontzejuek libreki erabaki beharrekoen atalean emandako kopuruak atala bera finantzatzeko erabili beharko dituzte, eta gainerakoa artikuluko honen 1. apartatuko B), C) eta D) letretako jarduketarako baliatu dezakete. Ez da inolako zenbatekorik jasoko libreki erabaki beharrekoen kontzeptuan diruzaintzako gerakina behar bezala frogatzen ez bada.

5. Libreki erabaki beharreko jarduketarako foru lege honetan ezarritako baldintzak betetzen ez badira, ordaindutako kopuruak itzultzeko eskatuko da, kasuan kasuko espedientea interesdunei 15 egun balioudunetzunaldia emanda tramitatu ondoren. Itzulketa hori konpentsazio bidez eskatzen ahalko da, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren transferentzia arrunten atalaren kargura”.

Hamasei. 33. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“33. artikulua. Obren eta material inbentariagarriaren erosketen finantzaketa.

1. Lege honen 30. artikulua 1. apartatuaren C) eta D) letretako inbertsioetarako egokitasun-txostenen eskabideak 2017ko maiatzaren 2a baino lehenago aurkeztu beharko dira, edo kasuko urteko urtarrilaren 31 baino lehenago, 2018an eta 2019an finantzatu beharreko inbertsioen kasuan; horretarako, administrazio prozedura erkideari buruzko oinarriko legediak ezarritako baldintzak bete eta IV. eranskineko 7. atalean adierazitako dokumentazioa erantsi beharko da.

Udal edo kontzeju eskatzaile bakoitzak komenigarriak iruditzen zaizkion material inbentariagarriaren inbertsio eta/edo erosketak guztiak sartzen ahalko ditu eskabidean.

Udal batek eskuordeturik dauzkanean kontzejuen eskumenak, inbertsioetarako egokitasun-txostenak eskatzen ahalko ditu kontzejuen onerako, eta, bidezkoa bada, kasuan kasuko ordainketak eskatu epe orokorren barruan.

Salbuespen gisa, kontzejuren batek, zerbitzu eskudunaren iritiz justifikatua den arrazoi batengatik, ez badu eskatzen egokitasun-txostenik horretarako ezarritako epean, udalak eskatzen ahalko ditu egokitasun-txostenak, epe hori amaitu eta hilabeteko epean, kontzeju horri libreki erabaki beharrekoen atalean dagokion ekarpena kontzejurako onuragarriak diren inbertsioetan erabiltzeko. Kasu horretan, udalak inbertsioak egin eta ordainketak eskatuko ditu.

2. Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunak eskaeraren egokitasunari buruzko txostena emanen du dokumentazioa aurkezten denetik hilabeteko epean. Epe horretan toki entitateari eskaera egokia den edo ez jakinarazten ez bazaio, edo, bestela, zuzentzeko errekerimendua, iritzia aldekoa dela ulertuko da.

3. 30. artikulua 1. apartatuaren C) eta D) letretako inbertsioetarako libreki erabaki beharreko ekarpenak ordaintzeko eskaerak aldeko egokitasun-txostenak izan behar dituzte, eta epe hauetan eginen dira:

A) 6. kapituluko obra eta jarduketarako, lege hau argitaratu aurretik amaitu badira, epea hilabetekoa izanen da legeak indarra hartzen duenetik aurrera.

B) 6. kapituluko gainerako obren eta jarduketaren kasuan, ordaintzeko eskaerak hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, jarduketa amaitzen denetik, edo jarduketaren zatia amaitzen denetik, ziurtapen partzialak badira. Kasu horretan, amaiera data amaierako ziurtagirian, ziurtagiri partzialean edo fakturan ageri dena izanen da.

Ordaintzeko eskaerak aurkezteko azken eguna azaroaren 1a izanen da, ekarpena esleitu zaion urtekoa, non ez den baimen berezi bat ematen toki entitateak frogatutako inguruabarrak daudelako, eskaera aurkeztea galarazten dutenak; horrelakoetan epea luzatzen ahalko da urte bereko abenduaren 1a arte. Baimen berezi hori ordaintzetarako eskaerak aurkezteko epea amaitu baino 10 egun balioudun lehenago, beranduenez, eskatu beharko da”.

4. 2019ko ekitaldiari esleitutako ekarpenak ordaintzeko eskaerak 2018ko ekitaldiaren kargura ordaintzen ahalko dira, aurrekontuko diru erabilgarriaren arabera.

5. Ordaintzeko eskaerak IV. eranskineko 8. atalean eskatutako dokumentazioa erantsita aurkeztuko dira.

6. Jasotako zenbatekoa aurreikusitako xederako erabili dela frogatu beharko da ordainketen banku agirien bidez. Dagokion zenbatekoa jaso eta hilabeteko epean ere aurkezten ahalko dira froga horiek. Betebehar hori ez betetzeak berekin ekarriko du jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedurari hasiera ematea”.

Hamazazpi. 34. artikuluko 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“34. artikulua. Eskabideak eta agiriak zuzentzea.

2. 30. artikuluko 1. apartatuko C) eta D) letretako inbertsioak ordaintzeko eskaerak direnean, zuzentzeko errekerimendua ez bada behar bezala bete, eskaera ukatu egin dela ulertuko da. Halere, ordainketa berria eskatzen ahalko da 33. artikuluan aurreikusitako epeetan”.

Hemezortzi. Hirugarren xedapen gehigarria aldatzen da, testu honekin:

“Hirugarren xedapen gehigarria. Plana zabaltzea.

Nafarroako Gobernuko departamentu eskudunak, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena eman ondoren, Toki Inbertsioen Plan honen finantzaketa handitzen ahalko du Toki Entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren kapital transferentzien atalari atxikitako diruzaintzako gerakinaren kargura, planean sartzeko modukoak diren baina aurretik, aurrekontuan diru erabilgarri aski ez izateagatik, sartu ez ziren inbertsioei aurre egiteko”.

Hemeretzi. Bosgarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“Bosgarren xedapen gehigarria. Entitateen ondorengotza eta titularitate aldaketak.

Toki entitate onuradun baten oinordetza hartzen badu beste entitate batek kasuan kasuko eskumenak betetzeko, bigarrena lehenaren eskubide eta betebeharretan subrogatuko da Toki Inbertsioen Planari dagokionez.

Inbertsioen titularitate aldaketak Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez egingen dira, justifikatu ondoren betiere”.

Hogei. Azken xedapenetako lehena aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Azken xedapenetako lehena. Erregelamenduak emateko gaikuntza.

Baimena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta toki administrazioaren arloko eskumena duen departamentuko titularrari foru lege hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzaten”.

Hogeita bat. III. eranskina aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“III. eranskina. Libreki erabaki beharrekoen ekarpenak banatzeko irizpideak.

Udal konposatuetan, libreki erabaki beharrekoen ataleko diru-ekarpina kalkulatzeko oinarritzat hartuko den populazioa zehazteko, udalerriak 2015eko urtarrilaren lehen duen populazio zifra ofizialari udalerriko kontzejuetako populazio zifra ofizialak deskontatuko zaizkio. Eraitza 10etik gorakoa denean, hurrengo letretan aurreikusitakoari jarraikiz dagokion kopurua aplikatuko zaio.

A) 3.000 biztanle baino gehiagoko udalerrri edo kontzejuak.

3.001etik 5.000 biztanlera bitarte: 150.000 euro toki entitate bakoitzeko.

5.001etik 10.000 biztanlera bitarte: 170.000 euro toki entitate bakoitzeko.

10.000 biztanle baino gehiago: 190.000 euro toki entitate bakoitzeko.

Guztira, A) letra honetan aipatzen diren toki entitateei esleitu beharreko zenbatekoa ez da 6.000.000 eurotik gorakoa izanen.

B) 3.000 biztanleko edo hortik beherako udalerriak edo kontzejuak.

10etik 50 biztanlera bitarte: 20.545 euro toki entitate bakoitzeko.

51tik 3.000 biztanlera bitarte: populazioaren arabera proportzioan dagokion zenbatekoa, 20.589,32 euroko gutxienez 51 biztanlerentzat eta 148.000 euroko gehienekora 3.000 biztanlerentzat.

Guztira, B) letra honetan aipatzen diren toki entitateei eta 3.000 biztanleko edo gutxiagoko udal konposatuei esleitu beharreko zenbatekoa ez da 17.000.000 eurotik gorakoa izanen”.

Hogeita bi. IV. eranskineko 4., 7., 8., 11., 12. eta 13. atalak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“IV. eranskina. Dokumentazioa.

4. Inbertsio Programetako eta Toki Programazioko gehieneko diru-ekarpina finkatzea:

A) Exekuzio proiektua, udalaren osoko bilkurak, kontzejuko batzordeak edo batzarrak onetsia.

B) Finantza plana onesten duen erabakia, udal osoko bilkurak, kontzejuko batzordeak edo batzarrak hartutakoa, eranskin honen 11. atalean jasotako ereduaren arabekoa.

C) Lankidetzak hitzarmenak, halakorik badago, 6. atalean ezarritako edukiarekin.

7. Libreki erabaki beharrekoen atalerako egokitasun-txostenen eskaerak:

A) Eskabidea, behar bezala betea, inbertsioa, kalkulaturako aurrekontua eta eskatzen den ekarpena deskribatuta.

8. Libreki Erabaki beharrekoen atalerako ordainketa eskaerak.

A) 2009-2012 aldirako Toki Inbertsioen Planaren babesean emandako hasierako baimenarekin gauzaten diren lanak, bai eta Toki Inbertsioen egungo Planaren indarraldian gauzatu beharreko lanak ere:

A.1) Eskabide orria, behar bezala betea.

A.2) Obraren likidazioa, atalez atal zehaztua, edo ziurtagiri partzialak. Zuzendaritza fakultatiborik behar ez duten obretarako, dokumentu horien ordeztura faktura xehatua aurkezten ahalko da.

A.3) Fakturak

A.4) Egindako jarduketaren deskribapena, haien dokumentazio grafikoarekin bat.

A.5) Beste erakunde publiko edo pribatuen laguntzak jaso izanaren ziurtagiria, bai eta onartu zain dauden eskaerena ere.

A.6) Ziurtagiria, frogatzen duena jarduketa edo jarduketak 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planaren indarraldian gauzatu direla eta foru lege honen aurreikuspenekin bat, salbu eta hasierako baimena zuten eta 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen gauzaturako inbertsioetarako.

A.7) Ordainketen bankuko frogagiriak.

B) Gastuen aurrekontuko sailkapen ekonomikoko 6. kapituluaren kontabilizatu beharreko edozein jarduketa finantzatzeko:

B.1) Eskabide orria, behar bezala betea.

B.2) Erositako ondasunen zerrenda eta fakturak.

B.3) Egindako jarduketaren deskribapena, haien dokumentazio grafikoarekin batera.

B.4) Beste erakunde publiko edo pribatuen laguntzak jaso izanaren ziurtagiria, bai eta onartu zain dauden eskaerena ere.

B.5) Ziurtagiria, frogatzen duena jarduketa edo jarduketak 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planaren indarraldian gauzatu direla eta foru lege honen aurreikuspenekin bat.

B.6) Ordainketen bankuko frogagiriak.

11. Planaren sartzeko eskabide ereduak eta inbertsio motaren araberako fitxenak Toki Programazioaren atalerako; finantza planaren onespeneren ziurtagiriarenak; egokitasun-txostenarenak eta finantza pasiboaren amortizazio aurreratuak egiteko ordainketa eskabideenak, libreki erabaki beharrekoen atalerako: Nafarroako Gobernuaren web orrian egonena dira eskuragai.

12. Gehieneko diru-ekarpena ezartzea eta larrialdiko kalifikazioa duten jarduketaren ordainketa:

A) Kontratazio organoak larrialdiko jarduketa onartu izanaren ziurtagiria.

B) Larrialdiko izaeraren justifikazio tekniko eta juridikoa.

C) Egindako jarduketaren deskribapena, haien dokumentazio grafikoarekin batera.

D) Likidazioa atalez atal, edo faktura xehatua.

E) Fakturak eta ordainketen bankuko frogagiriak.

F) Beste erakunde publiko edo pribatuen laguntzak jaso izanaren ziurtagiria, bai eta onartu zain dauden eskaerarenak ere.

13. Hasierako baimena:

A) Exekuzio proiektua, udalaren osoko bilkurak, kontzejuko batzordeak edo batzarrak onetsia.

B) Finantza plana onesten duen erabakia, udal osoko bilkurak, kontzejuko batzordeak edo batzarrak hartutakoa, eranskin honen 11. atalean jasotako ereduaren arabera".

Xedapen iragankor bakarra. Araubide iragankorra.

Foru lege honek indarra hartu aurretik tramitatu diren ordainketak, obra hasierakoak eta obra erdikoak, erregularizatu egiten dira, toki entitateak eskatzen duen hurrengo ordainketaren zenbatekoari %10 gehituz.

Xedapen indargabetzaile bakarria. Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehenengoa. Araugintza-garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio behar adina xedapen eman ditzan foru lege honetan ezarritakoa garatu eta betearazteko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.